

ASTIGARRAGAKO HERRI ESKOLAKO AGENDA 2030



ESKOLA
AGENDA
2030
energia

3. BULETIN ELEKTRONIKOA

IKASTURTEKO 2. UDAL FOROA

Ekainaren 11n, eskolako ekoordezkariak, Astigarragako Alkatearekin (Xabier Urdangarin Lasa) eta ingurumen arloko zinegotziarekin (Andoni Gartzia Arruabarrena) elkartu ziren berriz ere udaletxeko udalbatza aretoan. Parte-hartze saio honen helburua ikasleek udal arduradunei martxotik ekainera bitartean eskola mailan energia aurrezteko eta arduraz erabiltzeko emandako pausoen berri ematea izan zen, bidean antzemandako zailtasunak ere mahaigaineratuz.

Aurrekoaz gainera, udal arduradunek herri mailan udaletik garatuko diren proiektu ezberdinen berri eman zuten (ibai-parkea zabaltzea eta Donostiako Udalarekin batera bizikleten alokairu-sistema herrian ezartzeko bideragarritasuna, esate baterako).

Bukatzeko, ekoordezkariek hurrengo 2 ikasturteetan Eskolako Agenda 2030 programaren baitan landuko den gaia ezagutzera eman zuten: [MUGIKORTASUNA](#).





ASTIGARRAGAKO HERRI ESKOLAKO AGENDA 2030


3. BULETIN ELEKTRONIKOA

IKASLEEK HERRITARREI ETXEAN ENERGIA AURREZTEKO GOMENDIOAK EMAN DIZKIETE:

Eskolan landutako energiari buruzko esku-hartze planeko proiektuetako bat herritarrei begirako sentsibilizazio kanpaina bat antolatzea izan da. Helburu horrekin, eskolak eta udalak elkarlanean, **energiari buruzko 2 informazio-puntu** jarri ziren ekainaren 14an, 10:00etatik 11:30era, herri gunean (horietako bat Sagartxo plazan eta bestea Kontxa Etxeberria plazan).

Informazio-puntuetara hurbiltzen ziren herritarrek ikasleen aholku baliotsuak entzuteko aukera izan zuten eta energiari buruzko gomendioak jasotzen dituzten eskuorriak hartu ahal izan zituzten.

Hona hemen **zenbait aholku**:



- Dutzatzeko 5 minutu erabili.
- Ur beroa erabiltzen dugunean, ahalik eta gutxien erabili.
- Argi naturala aprobetxatu.
- Berogailua piztuta dagoenean leihoak ez ireki.
- Berogailua 19^otara jarri eta arropa egokia jantzi.
- Aparatu elektrikoak erabiltzen ez direnean, deskonektatu.
- Ez daukazunean pentsatuta hozkailutik zer hartu, ez ireki. Hartu behar den denbora hozkailutik zer behar duzun pentsatzeko.
- Irogailua lau pisutik gora joateko erabili bakarrik. Gainerakoetan, eragin gorputzari! Energia aurrezteaz gain osasunez ere irabaziko duzu.
- Pertsianak elektrikoen ordeztu, sokazkoak jarri.
- Ordenagailuak, telebista eta beste tresna elektrikoak ez ditugunean erabili behar, guztiz itzali.
- Kotxea soilik behar-beharrezkoa denez erabili.



ASTIGARRAGAKO HERRI ESKOLAKO AGENDA 2030

3. BULETIN ELEKTRONIKOA

3. MAILAKO IKASLEAK ILLARRAREN BARATZEAN ETA HERRI-BARATZEETAN IZAN DIRA:

Aurreko urteetako ohiturari jarraituz, Lehen-hezkuntzako 3. mailako ikasleek Astigarragan **bertako eta sasoiko produktuak** ereiteko eta horiek eskuratzeko ditugun baliabideak gertutik ezagutzeko aukera paregabea izan zuten. Horrela, maiatzaren 14an, Ilarra taldeak kudeatzen duen baratza bisita genuen eta ilar mota ezberdinak ikusi eta dastatu ahal izan genituen. Aurrerago, maiatzaren 24an, Udalarenak diren eta herritarrek lantzen dituzten baratzeetara hurbildu ginen, garaiko barazkien berri izateko eta horiekin etxean prestatu ditzakegun errezeta goxoak asmatzeko. On egin!

